ERRENTERIA
UDALA

EGONKORTZE PROZESUA, LEHIAKETA-OPOSAKETA

LO_30 - OFIZIAL AROTZA

LO_31 – OFIZIAL IGELTSEROA

PROCESO DE ESTABILIZACIÓN, CONCURSO-OPOSICIÓN

LO_30 - OFICIAL CARPINTERÍA

LO_31 – OFICIAL ALBAÑILERÍA

1. ariketa

1er ejercicio

2024-05-30

ERRENTERIA
UDALA

EUSKARAZ	GAZTELERAZ
1. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 11. artikuluaren arabera, lan-kontratuko langileak honelakoak izan daitezke:	**1. De acuerdo al artículo 11 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, el personal laboral puede ser:**
a) Bitartekoa eta behin-behinekoa.	a) Interino y eventual.
b) Finkoa eta lanaldi partzialekoa.	b) Fijo y a tiempo parcial.
c) Finkoa, denbora mugagaberako eta aldi baterako.	c) Fijo, por tiempo indefinido y temporal.
d) Finkoa eta bitartekoa.	d) Fijo e interino.
2. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 8. artikuluaren arabera, langile publikoak honela sailkatzen dira, besteak beste:	**2. De acuerdo al artículo 8 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, los empleados públicos se clasifican entre otros, en:**
a) Karrerako funtzionarioak.	a) Funcionarios de carrera.
b) Bitarteko funtzionarioak.	b) Funcionarios interinos.
c) Lan-kontratudunak.	c) Personal laboral.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.	d) Todas las respuestas anteriores son correctas.
3. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 10.1 artikuluaren arabera, plaza hutsak daudenean bitarteko funtzionario izendatu ahal izango da, karrerako funtzionarioek bete ezin dituztenean:	**3. De acuerdo al artículo 10.1. del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, se podrá nombrar funcionario interino cuando estemos ante la existencia de plazas vacantes, cuando no sea posible su cobertura por funcionarios de carrera:**
a) Gehienez hiru urtez.	a) por un máximo de tres años.
b) Gehienez urte betez.	b) por un máximo de un año.
c) Gehienez bost urtez.	c) por un máximo de cinco años.
d) Gehienez hamar urtez.	d) por un máximo de diez años.
4. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, langile publikoen betebeharra da, besteak beste, printzipio hauen arabera jardutea:	**4. De acuerdo al Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, son deberes de los empleados públicos, entre otros, actuar con arreglo a los principios de:**
a) Objektibotasuna.	a) Objetividad.
b) Inpartzialtasuna.	b) Imparcialidad.
c) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errespetatzea.	c) Respeto a la igualdad entre mujeres y hombres.

d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.	d) Todas las respuestas anteriores son correctas.
5. Printzipio etikoak dira, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 53. artikuluaren arabera (ADIERAZI ERANTZUN OKERRA):	**5. Son principios éticos de acuerdo al artículo 53 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre (SEÑALAR LA RESPUESTA INCORRECTA):**
a) Enplegatu publikoek konstituzioa eta antolamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak errespetatuko dituzte.	a) Los empleados públicos respetarán la Constitución y el resto de normas que integran el ordenamiento jurídico.
b) Ez daude behartuta beren jarduera zerbitzuak ematen dituzten administrazioarekiko leialtasunaren eta fede onaren printzipioetara egokitzera.	b) No se encuentran obligados a ajustar su actuación a los principios de lealtad y buena fe con la Administración en la que presten sus servicios.
c) Pertsona fisikoek edo entitate pribatuek ez dute onartuko bidezko arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren aldeko traturik edo egoerarik.	c) No aceptarán ningún trato de favor o situación que implique privilegio o ventaja injustificada, por parte de personas físicas o entidades privadas.
d) Dagozkien edo esleitzen zaizkien eginkizunak arretaz beteko dituzte.	d) Cumplirán con diligencia las tareas que les correspondan o se les encomienden.
6. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 54. artikuluan araututako jokabide-printzipioen arabera, langile publikoek:	**6. Según los principios de conducta regulados en el artículo 54 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, los empleados públicos:**
a) Baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratuko dituzte, eta ez dituzte erabiliko beren edo inguruko pertsonen onurarako. Halaber, haiek zaintzeko betebeharra izango dute.	a) Administrarán los recursos y bienes públicos con austeridad, y no utilizarán los mismos en provecho propio o de personas allegadas. Tendrán, asimismo, el deber de velar por su conservación.
b) Baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratuko dituzte, baina beren edo inguruko pertsonen onurarako erabili ahalko dituzte. Halaber, haiek zaintzeko betebeharra izango dute.	b) Administrarán los recursos y bienes públicos con austeridad, pero podrán utilizar los mismos en provecho propio o de personas allegadas. Tendrán, asimismo, el deber de velar por su conservación.
c) Baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratuko dituzte, eta ez dituzte erabiliko beren edo inguruko pertsonen onurarako. Baina ez dute haiek zaintzeko betebeharra izango.	c) Administrarán los recursos y bienes públicos con austeridad, y no utilizarán los mismos en provecho propio o de personas allegadas. Pero no tendrán el deber de velar por su conservación.
d) Baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratuko dituzte, baina beren edo inguruko pertsonen onurarako erabiltzen ahalko dituzte.	d) Administrarán los recursos y bienes públicos con austeridad, pero podrán utilizar los mismos en provecho propio o de personas allegadas. Además no

Gainera, ez dute haiek zaintzeko betebeharra izango.	tendrán el deber de velar por su conservación.
7. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.1. artikuluaren arabera:	**7. De acuerdo al artículo 3.1. de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres:**
a) Debekatuta dago pertsonen sexuan oinarritutako bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, horretarako erabiltzen den modua edozein dela ere.	a) Se prohíbe toda discriminación basada en el sexo de las personas, tanto directa como indirecta y cualquiera que sea la forma utilizada para ello.
b) Debekatuta dago pertsonen sexuan oinarritutako bereizkeria oro, baina zuzenekoa bakarrik, zeharkako bereizkeria ez baita diskriminaziotzat hartzen.	b) Se prohíbe toda discriminación basada en el sexo de las personas, pero solo la directa, ya que la discriminación indirecta no se considera discriminación.
c) Debekatuta dago pertsonen sexuan oinarritutako bereizkeria oro, soilik kasu batzuetan.	c) Se prohíbe toda discriminación basada en el sexo de las personas, solo en algunos supuestos.
d) Sexuan oinarritutako bereizkeria ez dago debekatuta lege honetan.	d) La discriminación basada en el sexo de las personas no está prohibida en esta ley.
8. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.9. artikuluaren arabera, zer printzipiori egiten dio erreferentzia honako honek: neurri egokiak hartzea emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan:	**8. Según el artículo 3.9. de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, la adopción de medidas oportunas para lograr una presencia equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuadas en los distintos ámbitos de toma de decisiones, se refiere al principio de:**
a) Ordezkaritza orekatua.	a) Representación equilibrada.
b) Aukera-berdintasuna.	b) Igualdad de oportunidades.
c) Aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea.	c) Respeto a la diversidad y a la diferencia.
d) Tratu berdina.	d) Igualdad de trato.
9. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.9. artikuluaren arabera, ordezkaritza orekatua dagoela jotzen da lau kide baino gehiago dituzten organoetan sexu bakoitzak honako ordezkaritza hau baldin badu gutxienez:	**9. Según el artículo 3.9. de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se considera que existe una representación equilibrada en los órganos de más de cuatro miembros cuando las personas de cada sexo están representadas al menos al:**
a) % 20	a) 20%
b) % 30	b) 30%
c) % 40	c) 40%

d) % 50	d) 50%
10. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 15. artikuluak honela dio:	**10. Dice el artículo 15 de la Ley 7/19985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, que:**
a) Udal-erroldan inskribatutako pertsonen multzoa udalerriko biztanleria da.	a) El conjunto de personas inscritas en el Padrón municipal constituye la población del municipio.
b) Udalerriko bizilagunak dira udal erroldan inskribaturik daudenak.	b) Los inscritos en el Padrón municipal son los vecinos del municipio.
c) Erroldan inskribatzen den unean bertan hartuko da bizilagun izaera.	c) La condición de vecino se adquiere en el mismo momento de su inscripción en el Padrón.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.	d) Todas las respuestas anteriores son correctas.
11. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 19. artikuluaren arabera:	**11. De acuerdo al artículo 19 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local:**
a) Alkateak aukeratzen ditu zinegotziak, eta alkatea sufragio unibertsal, berdin, libre, zuzen eta isilpekoaren bidez aukeratzen da.	a) Los Concejales son elegidos por el Alcalde, y el Alcalde es elegido mediante sufragio universal, igual, libre, directo y secreto.
b) Zinegotziak sufragio unibertsal, berdin, aske, zuzeneko eta isilpekoaren bidez aukeratzen dira, eta alkatea zinegotziek edo bizilagunek aukeratzen dute.	b) Los Concejales son elegidos mediante sufragio universal, igual, libre, directo y secreto, y el Alcalde es elegido por los Concejales o por los vecinos.
c) Bai zinegotziak bai alkatea sufragio unibertsal, berdin, aske, zuzeneko eta isilpekoaren bidez aukeratzen dira.	c) Tanto los Concejales como el Alcalde son elegidos mediante sufragio universal, igual, libre, directo y secreto.
d) Zinegotziak eta alkatea, alkateak berak aukeratzen ditu.	d) Tanto los Concejales como el Alcalde son elegidos por el propio Alcalde.
12. Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 2. artikuluaren arabera, lege honen helburu da:	**12. Conforme a su art. 2, la Ley 31/1995 de Prevención de Riesgos Laborales tiene por objeto:**
a) Lege honen xedea da langileen segurtasuna eta osasuna sustatzea, lanak eratorritako arriskuak prebenitzeko behar diren neurriak aplikatuz eta jarduerak gauzatuz.	a) Promover la seguridad y la salud de los trabajadores mediante la aplicación de medidas y el desarrollo de las actividades necesarias para la prevención de riesgos derivados del trabajo.
b) Laneko istripuen estatistikak bultzatu eta garatzea.	b) Potenciar y desarrollar las estadísticas de los accidentes de trabajo.
c) Langileen segurtasuna garatzea, neurri zuzentzaileak eta zigortzaileak ezarriz.	c) Desarrollar la seguridad de los trabajadores mediante el establecimiento

	de medidas correctoras y sancionadoras.
d) Printzipio orokorrak ezartzea enpresaburuak arriskuko lanak kentzera behartzeko.	d) Establecer principios generales para obligar a los empresarios a suprimir los trabajos con riesgo.
13. Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 15. artikuluari jarraikiz, enpresaburuak prebentzio-eginbehar orokorra osatzen duten neurriak aplikatuko ditu, ondoko printzipio orokorrak aintzat hartuta:	**13. Conforme al art. 15 de la Ley 31/1995 de Prevención de Riesgos Laborales, el empresario aplicará las medidas que integran el deber general de prevención, con arreglo a los siguientes principios generales:**
a) Arriskuak saihestea.	a) Evitar los riesgos.
b) Saihestezinak diren arriskuak ebaluatzea.	b) Evaluar los riesgos que no se puedan evitar.
c) Arriskuen jatorriaren aurka borrokatzea.	c) Combatir los riesgos en su origen.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.	d) Todas las respuestas son correctas.
14. Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 19. artikuluari jarraikiz (langileen prestakuntza), zein da <u>erantzun okerra</u>?	**14. Conforme al art. 19 de la Ley 31/1995 de Prevención de Riesgos Laborales (Formación de los trabajadores), señala <u>la respuesta incorrecta</u>:**
a) Enpresaburuak bermatu beharko du, langile bakoitzak izatea prestakuntza teorikoa eta praktikoa, behar bestekoa eta egokia, kontratua egiteko unean, kontratu-modalitatea edo iraupena edozein dela, edota langileak dituen eginkizunak aldatzen direnean edo lan-ekipamenduetan teknologia berriak aplikatu nahiz aldaketak egiten direnean	a) El empresario deberá garantizar que cada trabajador reciba una formación teórica y práctica, suficiente y adecuada, en materia preventiva, tanto en el momento de su contratación, cualquiera que sea la modalidad o duración de ésta, como cuando se produzcan cambios en las funciones que desempeñe o se introduzcan nuevas tecnologías o cambios en los equipos de trabajo.
b) Prestakuntza langile bakoitzaren lanpostu edo eginkizunaren araberakoa izan beharko da, eta arriskuen bilakaerari eta ager daitezkeen arrisku berriei egokitu beharko zaie, eta, hala behar izanez gero, aldian-aldian errepikatu beharko da.	b) La formación deberá estar centrada específicamente en el puesto de trabajo o función de cada trabajador, adaptarse a la evolución de los riesgos y a la aparición de otros nuevos y repetirse periódicamente, si fuera necesario.
c) Aurreko idatz-zatiak aipatu prestakuntza eman beharko da, ahal den neurrian, lanaldian edo, lanaldian ezin bada, beste ordu batzuetan, baina prestakuntzako denbora lanaldiari deskontatuta.	c) La formación a que se refiere el apartado anterior deberá impartirse, siempre que sea posible, dentro de la jornada de trabajo o, en su defecto, en otras horas pero con el descuento en aquélla del tiempo invertido en la misma.
d) Prestakuntza enpresak eman beharko	d) La formación la deberá impartir la

du, bere baliabideen bidez, eta horren kostua enpresaren eta langileen artean ordainduko dute erdibana.

empresa mediante medios propios y su coste recaerá entre la empresa y los trabajadores, a partes iguales.

15. Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 21. artikuluari jarraikiz, langileek lanaren ondorioz arrisku larri eta hur-hurrekoa dutenean, edo izan dezaketenean, enpresaburuak hurrengo betebeharrak izango ditu:

15. Conforme al art. 21 de la Ley 31/1995 de Prevención de Riesgos Laborales, cuando los trabajadores estén o puedan estar expuestos a un riesgo grave e inminente con ocasión de su trabajo, el empresario estará obligado a:

a) Ukitutako langile guztiak ahalik arinena informatzea, arrisku horren inguruan eta babesari dagokionez hartutako neurrien edo, hala denean, hartu beharreko neurrien inguruan.

a) Informar lo antes posible a todos los trabajadores afectados acerca de la existencia de dicho riesgo y de las medidas adoptadas o que, en su caso, deban adoptarse en materia de protección.

b) Neurri egokiak hartu eta jarraibide egokiak ematea, arrisku larria, berehalakoa eta saihestu ezina dagoenean, langileek euren jarduera geldiarazteko aukera izan eta, behar izanez gero, lan egiten duten lekua berehala utz dezaten.

b) Adoptar las medidas y dar las instrucciones necesarias para que, en caso de peligro grave, inminente e inevitable, los trabajadores puedan interrumpir su actividad y, si fuera necesario, abandonar de inmediato el lugar de trabajo.

c) Egoki dena agintzea, hierarkian gorago dagoen pertsonarekin harremanetan jar ezin daitekeen langilea, bere segurtasunarentzat, beste langile batzuen segurtasunarentzat edo enpresatik kanpoko edonoren segurtasunarentzat arrisku larri eta hur-hurrekoa dagoenean, arrisku horren ondorioak saihesteko egoeran izan dadin, langile horren ezaguerak eta beraren eskura jarritako baliabide teknikoak aintzat hartuta.

c) Disponer lo necesario para que el trabajador que no pudiera ponerse en contacto con su superior jerárquico, ante una situación de peligro grave e inminente para su seguridad, la de otros trabajadores o la de terceros a la empresa, esté en condiciones, habida cuenta de sus conocimientos y de los medios técnicos puestos a su disposición, de adoptar las medidas necesarias para evitar las consecuencias de dicho peligro.

d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

d) Todas las respuestas son correctas.

16. Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 29. artikuluari jarraikiz, arriskuen prebentzioaren arloan, langileen betebeharrak dira ... (adierazi zein den <u>erantzun okerra</u>)

16. Conforme al art. 29 de la Ley 31/1995 de Prevención de Riesgos Laborales, son obligaciones de las personas trabajadoras en materia de prevención de riesgos… (señala <u>la respuesta incorrecta</u>):

a) Makinak, aparatuak, lanabesak, substantzia arriskutsuak, garraio-ekipamenduak eta, orokorrean, lan egiteko osterantzeko tresnak modu egokian erabiltzea, horien izaera eta aurreikus daitezkeen arriskuak kontuan

a) Usar adecuadamente, de acuerdo con su naturaleza y los riesgos previsibles, las máquinas, aparatos, herramientas, sustancias peligrosas, equipos de transporte y, en general, cualesquiera otros medios con los que desarrollen su

hartuta.	actividad.
b) Euren jarduerako tresnetan edo jarduera hori gauzatzeko lan-lekuetan dauden segurtasun-gailuak edo instala daitezkeenak jardunbidetik kentzea.	b) Poner fuera de funcionamiento los dispositivos de seguridad existentes o que se instalen en los medios relacionados con su actividad o en los lugares de trabajo en los que ésta tenga lugar.
c) Enpresaburuak emandako babes-ekipamenduak modu egokian erabiltzea, enpresaburuaren jarraibideekin bat etorriz.	c) Utilizar correctamente los medios y equipos de protección facilitados por el empresario, de acuerdo con las instrucciones recibidas de éste.
d) Enpresaburuarekin lankidetzan aritzea, horrek berma ditzan lan-baldintza seguruak eta langileen segurtasun zein osasunerako arriskurik ez dakartenak.	d) Cooperar con el empresario para que éste pueda garantizar unas condiciones de trabajo que sean seguras y no entrañen riesgos para la seguridad y la salud de los trabajadores.
17. Errenteriako Udalean hizkuntza ofizialak erabiltzeko normalizazio planaren helburu nagusia da hizkuntz-politikako neurriak erabakitzea eta sustatzea euskara izan dadin:	**17. El objetivo principal del Plan de normalización del uso de las lenguas oficiales en el ayuntamiento de Errenteria es aprobar y promover medidas de política lingüística tendentes a garantizar que el euskera sea:**
a) herritarrentzako zerbitzu-hizkuntza.	a) lengua de servicio a la ciudadanía.
b) herritarrentzako zerbitzu-hizkuntza eta beste administrazio batzuekiko harremanetarako hizkuntza.	b) lengua de servicio a la ciudadanía y de relación con otras administraciones.
c) beste administrazio batzuekiko harremanetarako hizkuntza.	c) lengua de relación con otras administraciones.
d) herritarrentzako zerbitzu-hizkuntza, administrazioaren lan-hizkuntza eta beste administrazio, enpresa eta entitateekiko harremanetarako hizkuntza.	d) lengua de servicio a la ciudadanía, lengua de trabajo para la administración y lengua de relación con otras administraciones, empresas y entidades.
18. Errenteriako Udalean hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen Plan Estrategikoko indikadore hauetako zein <u>ez dago lotuta</u> herritarrei zerbitzua ematearekin?	**18. ¿Cuál de los siguientes indicadores del Plan Estratégico que regula el uso de las lenguas oficiales en el Ayuntamiento de Errenteria <u>no está relacionado</u> con la prestación del servicio a la ciudadanía?.**
a) Ordezkari politikoen eta langileen arteko bileretako dokumentazioan erabiltzen den hizkuntza.	a) Idioma utilizado en la documentación de las reuniones entre representantes políticos y personal trabajador.
b) Udalak argitaratzen dituen iragarki eta komunikazioetan erabiltzen den hizkuntza.	b) Idioma utilizado en los anuncios y comunicaciones que publica el Ayuntamiento.
c) Zein hizkuntzatan egiten diren ekitaldi	c) Idioma en el que se celebran los actos

publikoak.	públicos.
d) Udal Erregistroan herritarrek aurkezten dituzten dokumentuei erantzuteko erabiltzen den hizkuntza.	d) Idioma utilizado para responder a los documentos que presentan las y los ciudadanos en el Registro Municipal.
19. Errenteriako Udalean hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen Planaren arabera, bai telefonozko bai aurrez aurreko arretan alderdi hauek hartuko dira kontuan:	**19. Según el Plan que regula el uso de las lenguas oficiales en el Ayuntamiento de Errenteria, tanto en la atención telefónica como en la presencial, se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:**
a) Aurrez-aurre zein telefonoz Udalaren izenean hizketan ari denak lehen hitza euskaraz egingo du.	a) El personal que atienda al público tanto en atención directa como telefónica se dirigirá a éste en euskera en primer lugar.
b) Lehen hitzaren ondorengo jarduna herritarrak hautatutako hizkuntza ofizialean jarraituko da, herritarrak administrazioarekiko harreman-hizkuntza aukeratzeko daukan eskubidea zainduz.	b) La conversación posterior continuará en el idioma oficial elegido por el o la ciudadana, y se le garantizará en todo momento el derecho de elegir la lengua de relación con la administración.
c) Errenteriako Udaleko langileek ezin diete herritarrei eskatu hizkuntza batean edo bestean jarduteko, eta herritarrek aukeratutako hizkuntzak eman behar dute zerbitzua.	c) El personal del Ayuntamiento de Errenteria no puede solicitar al ciudadano o ciudadana que se exprese en una determinada lengua, y debe dar el servicio en la lengua elegida por las y los ciudadanos.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.	d) Todas las respuestas anteriores son correctas.
20. Errenteriako Udalean hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen Planaren arabera, errotulu finkoak (armairuetan jarritako etiketak, apalak eta abar) eta lanari lotutako kartel eta ohar puntualak honela idatziko dira:	**20. En base a los criterios lingüísticos para el uso de las lenguas oficiales en el Ayuntamiento de Errenteria, los rótulos fijos (etiquetas colocadas en armarios, estanterías etc) y los carteles y avisos puntuales ligados al trabajo se escribirán:**
a) Beti euskaraz.	a) Siempre en euskera.
b) Grafia euskaraz eta gaztelaniaz antzekoa denean, euskaraz.	b) Cuando la grafía sea similar en euskera y castellano, en euskera.
c) Beti euskaraz eta gaztelaniaz.	c) Siempre en euskera y castellano.
d) Gazteleraz, eta piktograma batez lagunduta joango dira.	d) En castellano e irán acompañados de un pictograma.
21. Errenteriako Udalean hizkuntza ofizialak erabiltzeko onartutako irizpideei jarraikiz, Udalak herritarrei idatziak euskaraz bidalko dizkie (aukeratu erantzun zuzena):	**21. De acuerdo con los criterios lingüísticos para el uso de las lenguas oficiales en el Ayuntamiento de Errenteria, el Ayuntamiento enviará los escritos en euskera a los y las ciudadanas (señale la respuesta correcta):**

a) Hartzailea 45 urtetik beherakoa denean.	a) Menores de 45 años.
b) Herritarra idatzia bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu duenean.	b) Que hayan presentado su escrito en los dos idiomas oficiales.
c) Idatzia euskaraz aurkeztu dutenean edo/eta hala egitea eskatu dutenean.	c) Que hayan presentado su escrito en euskera y/o así lo hayan solicitado.
d) Udalak idatzi guztiak ele bitan erantzuten ditu.	d) El Ayuntamiento responde todos los escritos en los dos idiomas oficiales.
22. NBE bat hainbat pertsonak erabil dezakete?	**22. ¿Puede ser un EPI utilizado por varias personas?**
a) Ez, legeak debekatzen du.	a) No, la ley lo prohíbe.
b) Bai, salbuespenik gabe.	b) Si, sin excepciones.
c) Bai, erabiltzaileei osasun edo higiene arazorik ez sortzeko beharrezko neurriak hartuz.	c) Si, adoptando las medidas necesarias para que ello no origine ningún problema de salud o de higiene a los diferentes usuarios
d) Erantzun guztiak okerrak dira.	d) Ninguna respuesta es correcta.
23. Erakusten diren baremoen artean, 2023ko abenduaren 31ko Errenteriako biztanle-kopurua dago	**23. ¿Entre qué baremo de las que se muestra se encuentra el número de habitantes de Errenteria a fecha de 31 de diciembre de 2023?**
a) 30.000-35.000	a) 30.000-35.000
b) 35.000-45.000	b) 35.000-45.000
c) 45.000-50.000	c) 45.000-50.000
d) 50.000-60.000	d) 50.000-60.000
24. Zein eskualdetan dago kokatua Errenteriako udalerria?	**24. ¿En qué comarca esta ubicado el municipio de Errenteria?**
a) Donostialdea	a) Donostialdea
b) Urola Kosta	b) Urola Kosta
c) Oarsoaldea	c) Oarsoaldea
d) Urdaburualdea	d) Urdaburualdea
25. Kale horietatik zein daude auzo batean baino gehiagotan?	**25. ¿De estas calles cuales son las que se ubican en más de un barrio?**
a) Galtzaraborda Etorbidea/ Avenida Galtzaraborda	a) Galtzaraborda Etorbidea/ Avenida Galtzaraborda
b) Nafarroa Hiribidea / Avenida de Navarra	b) Nafarroa Hiribidea / Avenida de Navarra
c) Miguel Alduntzin	c) Miguel Alduntzin

d) Hirurak zuzenak dira	d) Las tres son correctas
26. Zein auzotan daude musikariei buruzko kale-izenak?	**26. ¿En que barrio se ubican los nombres de calles referidos a músicos?**
a) Beraun	a) Beraun
b) Galtzaraborda	b) Galtzaraborda
c) Erdialdea	c) Centro
d) Gabierrota	d) Gabierrota
27. Zein kaletan dago Agustina Otaolaren instalazioa?	**27. ¿En que calle se ubica la instalación de Agustina Otaola?**
a) Beraun kalea	a) Beraun kalea
b) Aiako Harria	b) Aiako Harria
c) Touring etorbidea /Avenida del Touring	c) Touring etorbidea /Avenida del Touring
d) Dario Regoyos	d) Dario Regoyos
28. Zein instalazio mota da Agustina Otaola izena duena?	**28. ¿Que tipo de instalación es la que lleva el nombre de Agustina Otaola?**
a) Udal Igerilekua	a) Piscinas municipales
b) Erabilera anitzeko gela	b) Sala multifuncional
c) Musika eskola	c) Escuela de Musica
d) Udal frontoia	d) Frontón municipal
29. Errenteriako Udalaren Zu! zerbitzuko instalazioak ondorengo zein bi auzotan daude?	**29. ¿En que dos barrios se ubican las instalaciones del servicio de atención ZU! del Ayuntamiento de Errenteria??**
a) Beraun eta Erdialdea	a) Beraun y Centro
b) Galtzaraborda eta Alaberga	b) Galtzaraborda y Alaberga
c) Fanderia eta Erdialdea	c) Fanderia y Centro
d) Beraun eta Fanderia	d) Beraun y Fanderia
30. Zein auzotan dago Lousada kalea?	**30. ¿En que barrio se ubica la calle Lousada?**
a) Olibet	a) Olibet
b) Agustinas	b) Agustinas
c) Centro	c) Centro

d) Beraun	d) Beraun
ERRESERBAKO GALDERAK	**PREGUNTAS DE RESERVA**
31. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 12. artikuluak honela dio behin-behineko langileei buruz:	**31. El artículo 12 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, dice lo siguiente en relación al personal eventual:**
a) Izendapena eta kargu-uztea libreak izango dira.	a) El nombramiento y cese serán libres.
b) Kargu-uztea, betiere, konfiantzako edo aholkularitzako eginkizuna betetzen duen agintariarena gertatzen denean gertatuko da.	b) El cese tendrá lugar, en todo caso, cuando se produzca el de la autoridad a la que preste la función de confianza o asesoramiento.
c) Behin-behineko langile izateak ez du merezimendurik izanen Funtzio Publikoan sartzeko edo barne sustapenerako.	c) La condición de personal eventual no podrá constituir mérito para el acceso a la Función Pública o para la promoción interna.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.	d) Todas las respuestas anteriores son correctas.
32. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16. artikuluaren arabera, bizileku iraunkorrerako baimenik ez duten Europar Batasunetik kanpoko atzerritarren inskripzioari dagokionean, Udal Erroldan inskripzioa aldian-aldian berritu beharko da:	**32. Según el artículo 16 de la Ley 7/19985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, cuando se trate de la inscripción de extranjeros no comunitarios sin autorización de residencia permanente, la inscripción en el Padrón Municipal, en todo caso, deberá ser objeto de renovación periódica:**
a) 6 hilabetero.	a) Cada 6 meses.
b) 18 hilabetero.	b) Cada 18 meses.
c) 2 urtero.	c) Cada 2 años.
d) 5 urtero.	d) Cada 5 años.
33. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20. artikuluaren arabera, Kontuen Batzorde Berezia existitzen da:	**33. De acuerdo al artículo 20 de la Ley 7/19985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, la Comisión Especial de Cuentas existe:**
a) Udalerri guztietan.	a) En todos los municipios.
b) 5.000 biztanletik gorako udalerrietan bakarrik.	b) Sólo en los municipios de más de 5.000 habitantes.
c) Biztanleria handiko udalerrietan bakarrik.	c) Sólo en los municipios de gran población.
d) 20.000 biztanletik gorako udalerrietan	d) Sólo en los municipios de más de 20.000

bakarrik.	habitantes.
34. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.1. artikuluaren arabera, zer printzipiori egiten dio erreferentzia honako honek: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta horretarako, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketa zehatz batzuk txertatzea:	**34. Según el artículo 3.1. de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, la consideración sistemática de las diferentes situaciones, condiciones, aspiraciones y necesidades de mujeres y hombres, incorporando objetivos y actuaciones específicas dirigidas a eliminar las desigualdades y promover la igualdad en todas las políticas y acciones, se refiere a:**
a) Tratu berdina.	a) Igualdad de trato.
b) Aukera-berdintasuna.	b) Igualdad de oportunidades.
c) Genero-ikuspegiaren integrazioa.	c) Integración de la perspectiva de género.
d) Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea.	d) Eliminación de roles y estereotipos en función del sexo.
35. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 52. artikuluak hau arautzen du:	**35. El artículo 52 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, regula:**
a) Enplegatu publikoen betebeharrak.	a) Los deberes de los empleados públicos.
b) Jokabide-kodea.	b) El Código de Conducta.
c) Enplegatu publikoen betebeharrak eta Jokabide-kodea.	c) Los deberes de los empleados públicos y el Código de Conducta.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.	d) Ninguna de las respuestas anteriores es correcta.

ERRENTERIA
UDALA

EGONKORTZE PROZESUA, LEHIAKETA-OPOSAKETA
LO_30 - OFIZIAL AROTZA
LO_31 – OFIZIAL IGELTSEROA

PROCESO DE ESTABILIZACIÓN, CONCURSO-OPOSICIÓN
LO_30 - OFICIAL CARPINTERÍA
LO_31 – OFICIAL ALBAÑILERÍA

ERANTZUN ORRIA / HOJA DE RESPUESTAS	
Galdera zenbakia Número de pregunta	**Erantzun zuzena Respuesta correcta**
1	C
2	D
3	A
4	D
5	B
6	A
7	A
8	A
9	C
10	D
11	B
12	A
13	D
14	D
15	D
16	B
17	D
18	A
19	D
20	B
21	C
22	C
23	B
24	C
25	D
26	A
27	C
28	D
29	A
30	B

Erreserba galderak Preguntas reserva	Erantzun zuzena Respuesta correcta
31	D
32	C
33	A
34	C
35	C